



EUSKARA EZAGUTZEKO BEHARRA HELDUENGAN SUSTATZEKO PROPOSAMENA



EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA

ATARIKOA

Euskalgintzaren Kontseilua da gaur egun euskararen normalizazioaren alde lan egiten duten eragileen bilgune nagusia, eta ezaugarri horrek ematen dio, besteak beste, indarra edozein proposamen mahai gaineratzen duenean.

Horrela, bazkideen bilgunea izanik, bien arteko funtzio-banaketa nahiko argia izan da. Bazkideen funtzio nagusia egitean datza. Kontseiluarena, aldiz, eragitean. Gauzak horrela, Kontseilua osatzen duten bazkideek, nagusiki, hiztun berriak, erabilerarako espazioak edota erabilera-tresnak sortzean oinarritzen dute haien jarduera, bai eta aldarrikapenean ere. Kontseiluak, berriz, hiztun gehiago egon daitezen, erabilerarako espazioak egon daitezen neurriak har ditzaten eragiten du.

Egia da, egin eta eragin aditzen artean dagoen marra oso fina izaten dela beti, eta noski, horrekin batera esan behar da egitea edota eragitea ez dela eskusiboki bazkideek edo Kontseiluak egiten duten lana. Hau da, askotan bazkideek bere eragiten dute, edota Kontseiluak eragin baino, egin egiten du. Are gehiago, egitea bera eragitea da, eta eragiteak egitea dakar.

Eragite lan horri begira Euskalgintzaren Kontseiluak lau estrategia nagusi baliatu izan ditu: harreman publikoak, aktibazioa, proposamen politikoak eta mobilizazioa; bai eta ekintza komunikatibo orokorrak ere.

Euskalgintzaren Kontseiluaren proposamen hau *Doakotasuneranzko bidean* dokumentua osatzera eta hari segida ematera dator: la bost urte igaro dira herri ekimeneko euskaltegi gehien-gehien babesa bildu zuen agiri hura aurkeztu genuela, eta komeni da gogoratzea atondu genuen planteamenduaren funtsa: **herritarrak euskara ikasi ahal izateko dirurik aurreratutako beharrik ez izatea, dohainik ikasten segitu ahal izateko gutxienez %75eko bertaratzea izatea eta ikasmailarik ezinbestean gauditu beharrik ez izatea, euskalduntze prozesu guztia doakoa izatea, ikasleak 2.000 orduko ikastordu kreditu muga izatea eta instituzioek herri ekimeneko euskalategiekin ematen duten zerbitzu publiko hori osorik finantzatzea bost urteren buruan.**

Ukaezina da azken urteotan doakotasunarena hitzetik hortzera darabiltela Hego Euskal Herriko hainbat agintariek eta ordezkari politikok eta bide horretan aurrera egin dela EAEn eta Nafarroako Foru Erkidegoan, nahiz eta Kontseiluak 2017an (EAEn) eta 2018an (Nafarroa Garaian) plazaratu zituen planteamendu zehatz horiek ez dituzten bere horretan gauzatu.

Dena dela, jakin bagenekien hizkuntzaren normalizazio- edo berreskurapen-prozesu integralari lotzen bagatzaizkio hori ez dela nahikoa, hau da, euskara ikasteko doakotasuna bermatzea nahitaezkoa da, baina euskaldundu gabe dauden herritarrak euskalduntzeko bestelako politikak eta neurriak ere behar dira.

Izan ere, ezinbestekoa da, gure ustez, instituzioek herritarrari euskaraz jakitea gero eta beharrezkoagoa izango dela erakutsiko dion hizkuntza-politika egitea, batetik, eta, bestetik, helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko prozesua indarberritzea eta berrantolatzea Euskal Herri osoan, begien bistakoa baita herriar guzti-guztiek euskaraz jakitea behar-beharrezkoa dela gure herrian bizitzaren alor guztietan euskaraz bizi ahal izateko.

Eta horren gaineko gogoetaren emaitza da *Euskara ezagutzeko beharra helduengan sustatzeko proposamena*, *Doakotasuneranzko bidean* proposamenaren bitartez eman nahi izan genuen urratsaren ondorengo pausotzat jotzen duguna eta Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2020ko azaroan lankidetzan antolatutako *Ezagutzaren Unibertsalizazioa: Euskararen herria euskal hiztun izeneko jardunaldietan* Kontseiluko helduen euskalduntzearen sektoreko bazkideek hartutako konpromisoa betetzera ere badatorrena.

HELDUEN EUSKALDUNTZEA: SEKTORE ESTRATEGIKOA

Askotan azpimarratu du Euskalgintzaren Kontseiluak helduen euskalduntzearen sektorea estrategikoa dela herria euskalduntzeko prozesuan. Izan ere, euskararen normalizazio-prozesuan une oro dugu buruan beharrezkoa dela herritar guztiek euskaraz jakitea eta hizkuntza erabili ahal izateko espazioak izatea, eta, horrela, hiztun berriak eta espazio berriak sortzea izaten dira egoera gutxituan dagoen hizkuntza baten normalizazio-prozesuaren osagai nagusiak.

Egia da hainbatek uste izan dutela belaunaldi berriak euskaraz eskolatzeak berez euskaldunduko zuela herria. Tamalez, denborak garbi erakutsi digu hori ez dela nahikoa, alegia, hezkuntzaren iturriak ezinbesteko emari handia dakarrela herria euskalduntzeko; baina euskara nagusi ez den herri eta hirietan euskarazko irakaskuntza arautuaren mugak ere agerikoak dira, eragin soziolinguistikoari erreparatuta: euskararen erabilera eskasa, hiztun galerak. . . Horrek ez du esan nahi, inola ere, ikasle horien hizkuntza-gaitasuna hobetzeko neurririk hartzerik ez dagoenik, ezta euskarazko irakaskuntza Euskal Herri osora eta alor akademiko orotara zabaldu behar ez denik ere, noski. Aitzitik, behar-beharrezkoa da belaunaldi berriei euskararen ezagutza egokia bermatuko dien euskara ikas- eta irakas-hizkuntza duen ikasteredu orokortua abian jartzea gure lurraldearen luze-zabalean.

Transmisioari dagokionez, guraso euskaldun gehientsuenek irakasten diete euskara seme-alabei. Alor horretan ere, egoera hobetu daiteke, jakina, eta hobetu behar da, baina horrek ekar lezakeen aurrerabidea ez da erabakigarria izango, alor horretan hobera egiteko tarte handirik ez baitago.

Horrenbestez, gure ustez, helduen euskalduntze alfabetatzeak izan behar du datozen hamarkadetan herria euskalduntzeko prozesuaren ardatza, Euskal Herri osoan bizitzaren alor guztietan euskara nagusi izatea badugu helburu, eta ez berez sortzen den eskariari erantzute hutsa. Horrek esan nahi du bereziki bultzatu, indartu eta orokortu behar den jardunbidea helduak alfabetatzea eta euskalduntzea dela.

Azken batean, helduen euskalduntze eta alfabetatze masiboak ekarriko du herritar guztiek euskaraz jakitea, euskararen erabilera nabarmen areagotzea, euskaltzaletasuna eta euskal kulturaren ezagutza hedatzea eta handitzea, euskal kultur produktuen kontsumoa haztea, euskarazko irakaskuntza Euskal Herri osoan nagusitzea, euskararen aurkako jarrerak neutralizatzea eta hizkuntza-politika egokiak egitea erraztea.

Eta, horretarako, auzolan erraldoi horretarako, euskara ikasteko eta alfabetatzeko bidea samurtu egin behar zaio herritarrari, ikasi beharra sortu behar zaio, eta bitarteko egokiak eskura jarri, hau da, dohainik ikasteko modua eman behar zaio, hizkuntza-politika egokia egin behar da, eta sektorea berrantolatu eta egoki finantzatu behar da.

BATUZ ALDATU: ADOSTASUN BERRIEN NORABIDETZEA

Esan behar dugu une interesgarrian jorratu duela Euskalgintzaren Kontseiluko helduen euskalduntzearen sektoreak honako proposamen hau. Izan ere, Kontseiluak lan-jardun berri bati ekin dio, eta proposamen honek bete-betean egiten du bat hurrengo urteetarako definituta dugun estrategia berriarekin.

Hizkuntza fenomeno kolektiboa eta soziala den neurrian, normalizazio- edo berreskurapen-prozesuan ere eragile guztiok dugu zer esana eta zer egina, eta beraz erantzukizun partekatuak dituen prozesua da. Oinarri horrekin, Kontseiluak hamarnaka eragilerekin bilerak eta saioak egin zituen etorkizuneko hizkuntza-politiken helburua eta helburu horretara iristeko norabidetzeak adosteko.

Esan behar dugu prozesu arrakastatsua izan dela, eta lortu dugu ehundiko gora askotariko eragilek adostea hurrengo urteetako hizkuntza-politikek izan beharko lituzketen helburuak eta norabidetzeak.

Euskararen erabilera erosoerako baldintzak sortzea da helburu nagusia. Horretarako, hizkuntza-eskubi-deak eremu guztietan bermatu beharko dira, hala nahi duen edonork ez dezan euskara erabiltzeko inolako eragozpenik izan.

Izan ere, euskararen erabilera kate luze baten katebegi gisa irudika genezake. Horrela, erabilera hori gauzatu dadin, aurreko baldintza horiek guztiak bete beharko dira; elkarri kateatuta datoz. Eta, era berean, erabilerak ere eragingo die gainontzeko katebegiei. Horregatik diogu euskararen erabilerarako funtsezkoak direla katebegi guztiak behar bezala osatuta egotea. Euskararen garapena kate oso legez ulertu behar delako, katebegiek elkarri eragiten.

Ondorioz, erabilera erosora igarotzeko, bi mailatako baldintzak hartu behar dira gogoan: maila indibidual-ekoak eta maila kolektibokoak.

Maila indibidualeko baldintzak: norbanakoen erabilera erosoan zuzenean eragiten duten aldagaiak dira; hain zuzen ere, hizkuntza erabiltzeko kompetentziari lotutakoak. Hau da, tes-tuinguruari egokitutako ezagutza, gaitasun eta jarreraren konbinazioari lotutako kompetentziak dira (erabiltzen jakitea, erabili nahi izatea eta erabili ahal izatea). Horien artean garrantzia berezia du euskara erabiltzeko gaitasun egokia izateak, alegia, euskara eroso erabili ahal izateko behar besteko gaitasuna izateak. Hori bakarrik ez, euskara erabiltzeko nahia ere izan behar du hiztunak.

Horrek motibazioen esparrura garamatza. Esparru horretan bi motibazio-mota landu beharko dira: motibazio afektiboa eta motibazio pragmatikoa (instrumentala)

Maila kolektiboko edo egiturazko baldintzak: anitzagoak eta askotarikoagoak dira: elebi-dunen dentsitatea eta kontzentrazioa, erabilera babesteko/sustatzeko arau eta politikak, ... Horiei alde edo moldez lotzen zaizkie, beraz, proposamen politiko honetan jasotzen diren ekarpen guztiak. Hor ere badaude maila transzendentala edo balio konpartituek ematen dituzten baldintzak: Gizarteak orokorrean euskararekiko duen balorazioa eta euskararen prestigioa, besteak beste pertsona erreferentzialen euskararen erabilera, gizartean erreferentzialak diren eragileek euskara kokatzen duten tokia, hedabideetan euskarak duen espazioa...

Horiek esanda, eta euskararen erabilera erosoerako baldintzak sortzea jomuga izaki, bi ardatz nagusitan koka dezakegu helburu hori lortzeko norabidea. Alde batetik, hizkuntzaren ezagutzaren unibertsalizazioa bultzatu beharko da, herritar guztiak euskaraz aritzeko gaitasun egokia izan dezaten. Eta, bestetik, euskara eroso erabiltzeko eremuak sortu, garatu eta elkarlotu beharko dira, hala nahi duen edonork ez dezan izan euskara erabiltzeko inolako eragozpenik.

I. Ezagutzaren unibertsalizazioa

Herritarren euskaraz aritzeko gaitasun egokia zabaltzea gakoa izango da euskararen erabilera erosoarako. Edonork, edonon, euskara erabiltzeko eragozpenik izango ez badu, ezinbestekoa da elkarrizketako partaide guztiek euskaraz gaitasun nahikoa izatea. Eta, erabilera eroso hori edonork egin ahal izango badu, horretarako behar besteko gaitasuna izan beharko du; ez dadin beste hizkuntza batean baino deserosoago sentitu euskaraz hitz egiteko garaian.

Norabide horretan, ezagutzaren unibertsalizazioa lortu artean, lehen urrats gisa, ulermena unibertsalizatzea garrantzitsua izango da, euskaraz aritu nahi duen orok edozein egoeratan eta edozein solaskiderek in hizkuntza-hautua gauzatu ahal izateko.

Ondorioz, ezagutza unibertsalizatzeko iturri eta baldintzetan jarri beharko da arreta: hezkuntza sisteman, helduen euskalduntzean eta hizkuntza-transmisioan edo -sozializazioan. Esparru horiei begirako politike-tan jauzia egin beharko da:

Helduen euskalduntze eta alfabetatzeak euskararen ezagutza nahikoa bermatu beharko die bai etorri berriak direnei, eta bai hezkuntzatik behar besteko gaitasuna eskuratu ez dutenei ere (azken hauen kasuan, etorkizun hurbilean, hezkuntzak bermatu beharko luke oinarritzko ezagutza hori, esan bezala). Horretarako, unibertsalizazioa bermatzeko, zerbitzua doan jaso ahal izatea lortu beharko da.

Horrek ekarri du, besteak beste, helduen euskalduntzearen esparruaz ari garenean eta euskara ezagutzearen beharra sustatu edo sozializatzea helburu duen marko definitzean maila bat gora egitea eta hizkuntza-politikaren neurri orokorretan ere begirada jartzea.

2. Euskara eroso erabiltzeko eremuak sortu, garatu eta elkarlotzea

Euskara eroso erabiltzeko, beharrezkoa da horretarako espazioak sortzea, garatzea eta elkarlotzea. Eremu horiek, ordea, ez dira bat-batean lortuko, progresiboki lortu beharko dira.

Horrela, ehundik gora eragilek adostutako hizkuntza-politiken norabidetzeetako bat ezagutzaren unibertsalizazioa izateaz gain, berariaz dago jasota hizkuntza-gaitasun egokia bermatu beharko zaiela euskara ezagutzen ez duten herritarrei. Ondorioz, etorkizuneko hizkuntza-politike-tako lerro nagusia izan beharko du helduen euskalduntzeari lotutako politika eragingarriak egitea ezagutzaren unibertsalizazioa erdiesteko.

Esan bezala, ehun eragile baino gehiago batu dira etorkizuneko norabidetzeak adosteko prozesura. Askotarik eragileak: elkargo profesionalak (erizainak, ekonomistak, sendagileak, abokatuak...), gazte-mugimendua, mugimendu feminista, unibertsitate-esparruko eragileak, ikerketa-guneak, enpresa bilguneak, esparru kooperatiboa... bai eta euskalgintzako zein kultur-gintzako hamarnaka eragile ere. Horrek berme handiagoa ematen dio Kontseiluak helduen euskalduntzearen eremuan jorratu duen proposamenari, neurri handi batean printzipio horiek izan dituelako ardatz eta inspirazio.

EZAGUTZAREN UNIBERTSALIZAZIOA

AHALBIDETUKO DUEN

HIZKUNTZA-POLITIKAREN BEHARRA

Helduen euskalduntze alfabetatzean dugun egoera hizkuntza-politika orokorraren ispilu da. Gure herria zatitua dagoen hiru eremu administratiboetan instituzioek ez dute hizkuntza-politika koordinaturik egiten. Ez dago diagnostiko bateraturik, ez dago helburu adosturik. Herritarrak euskalduntzearen aurkako hizkuntza-politika garbia egin izan da Nafarroa Garaian; Ipar Euskal Herrian ere, antzera, eta EAEn egin den hizkuntza politikak, alde handiz hiruretan egokiena izan bada ere, hutsuneak ditu.

Euskarak duen lege babesari erreparatzen badiogu, bost egoera ditugu Euskal Herrian. Egia da horrek zaildu egiten duela norabide bera eta bakarra beharko lukeen hizkuntza-politika egitea; baina, era berean, elkar hartuta jardun behar izate horren premia areagotu egiten du, eta bide horretan egin daitekeen urrats oro funtsezkoa da, euskaldunon elkarrengandik urruntze kezkarri horri aurre egiteko.

Tokian tokiko errealitatetik abiatuta, hankak lurrean ezarrita, baina Euskal Herri osoan bizitzaren alor guztietan euskara nagusi izatea ipartzat hartuta, hizkuntza-politika koordinatu, bateratu eta bakarra behar dugu, erdaldun elebakarrari euskara ikastea gero eta beharrezkoagoa gertatuko zaiola argi sentiaraziko diona, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea arnasberrituko duena, euskaldunon hizkuntza-eskubideak lehenbailehen bermatuko dituena; azken batean, Euskal Herriko herritar guzti-guztiak euskaraz jakitea ekarriko duena, gure herrian gure hizkuntzan bizitzeko modua izan dezagun eta euskaldunon herriak bizirik iraun dezan.

HIZKUNTZA-POLITIKAREN

NORABIDETZEA HELDUEN

EUSKALDUNTZEAREN SEKTOREAN

Ehundik gora eragilek adostutako helburu eta norabidetzeean oinarrituta, Kontseiluaren helduen euskalduntzearen sektorea osatzen duten eragileek bigarren ariketa egin zuten norabidetze horiek helduen euskalduntzearen esparrura ekartzeko. Aipatu hausnarketa aho batez onartu zuen Kontseiluko Batzar Nagusiak 2021eko apirilean, eta ondorengo neurri zehatzak definitzeko erabilgarria izan da. Hona hemen, sektoreak egindako hausnarketa:

Ezagutzaren unibertsalizazioaren zutabeetako bat denez, oso garrantzitsua izango da bere izaera estrategikoa aitortzea. Horrela, honako bi ardatzetan kokatuko dira eremu honetako etorkizuneko erronkak: batetik, euskalduntze-prozesu osoan euskara ikastea eskubideari erantzuten dion doakotasuna ezartzea litzateke erronketako bat, eta, bestetik, ezagutzaren beharra sozializatzea. Lehenengoari dagokionez, herri ekimeneko euskaltegi ia gehienek bat egin dute Kontseiluak jorrotutako Doakotasuneranzko bidean proposamenarekin. Horregatik, bertan jasotzen diren irizpideak baliatuko dira euskara ikastea eskubidea garatzeko. Bigarrenari begira, ahalegina egin beharko da euskararen ezagutzaren premia gizarteratzeko. Hori, noski, beste eremuetako neurriek baldintzatuko dute —esaterako, administrazioko hizkuntza-eskakizunek, lan-munduan euskararen ezagutzak izango duen balio berezituak...—, eta garrantzitsua izango da hizkuntzaren prestigioan eragitea eta, horrekin batera, ezagutu ez ezik, ezagutza hori egu-

nerokoan praktikara eramateko politika egokien inplementazioa ere bai (erabilera erosorako neurriak ezartzea)

Horretarako, helduen euskalduntzearen sektoreak Euskal Herri osoan eragina izango duen marko juridiko-finantzarioa beharko du, zeinak sektorearen egituraketa birdefinituko duen, bere funtzio estrategikoa kontuan hartuta.

EZAGUTZAREN

UNIBERTSALIZAZIOA: NEURRIAK

Ezagutzaren unibertsalizazioa erdiesteko, hiru emari ditugu, eta horietako bat da helduen euskalduntzea. Aurretik azaldu dugu zein bide egin beharko litzatekeen euskara ikasteko eskubidea benetan berma dadin. Halere, horrek ez gaitu eramango zuzenean ezagutzaren unibertsalizaziora. Hartara, txanponaren beste aldeari ekingo diogu jarraian, hain zuzen ere, herritarrengan nola eragin euskara ikasteko eta erabiltzeko erabakia/bidea har dezaten. Hementxe aipatuko diren neurri horiek lege-babesa behar dute; hau da, ezagutzaren unibertsalizazioa espreski jaso beharko da.

Batuz Aldatu dokumentuan adierazi bezala, bi motibazio-mota landu behar dira, herritarrek euskara ikasteko eta erabiltzeko erabakia edo hautua egin dezaten: motibazio pragmatikoa (instrumentala) eta motibazio afektiboa.

Motibazio pragmatikoa estuki loturik dago norbere garapen pertsonalean eta profesionalean euskara ikasteak edo euskaraz hitz egiteak ekarriko dizkion onurekin. Hortaz, zerikusi handia izango dute horretan instituzioetatik garatzen diren politika publikoek, bai eta pribatuak ere. Horrek esan nahi du eremu guztietan euskaraz eroso aritzeko espazioak eta baliabideak bermatu beharko direla; izan euskaraz aritzeko zirkuituak sortuz, izan lanabesak (aplikazio informatikoak...) euskaraz erabili ahal izatea, izan...

Motibazio afektiboaren kasuan, komunitatearen pertenezia, identitatea, euskararekin izaniko gozameneko bizi-esperientziak eta abar luzea landu beharko dira. Horrek esan nahi du hizkuntzaren eta kulturaren arteko hariak egoki josi beharko direla, eta jendea euskal kulturaren murgiltzera bultzarazteaz gain, motibazio hori lantzeko etengabeko sentsibilizazio eta komunikazio-estrategia egokiak garatu beharko direla.

Hona hemen herritarrek euskara ikasteko erabakia hartzea eragin dezaketen hizkuntza-politikako zenbait neurri.

ADMINISTRAZIOA

- **Langile berriak eta barne formazioa:** kontratatutako langile berri guztiek euskara gaitasun egokia izatea bermatu beharko da. Horretarako, lan deialdietan euskara balioztatzen meritu sistemari epemuga jarri beharko zaio, eta, epemuga horretara iritsitakoan, merituen sistema gainditu, eta lanpostu guztietan dagozkion funtzioak euskaraz egiteko gaitasun egokia izatea eskatuko da.
- **Hizkuntza-irizpideak eta euskara-unitateak:** Euskarazko zerbitzua eta barne jardunean langileen arteko lan-hizkuntza euskara izango dela ziurtatzeko, lanpostuen erabilerarako irizpideak finkatuko dira. Horrekin batera, kide guztiek gaitasun nahikoa duten talde edo unitateak osatuz, euren jarduna euskaraz garatuko duten euskara-unitateak izendatuko dira.
- **Kanpo entitateak:** administrazioa zerbitzu kontratatzaile nagusienetakoa denez, administrazioen zerbitzuak kudeatzen dituzten entitateek (esleipenak eta azpikontratazioak) administrazioari berari ezarritako hizkuntza-irizpideak betetzea bermatuko da. Neurri hori administrazioko eremu eta atal guztietan aplikatuko da.
- **Lehentasunezko eremuak:**
 - o Osasungintzaren eremuan sartzen diren langile guztiei euskalduntzeko planak eta erraztasunak emango zaizkie, eta historia klinikoa euskaraz idazteko baliabideak eta erraztasunak jarri. Eta, nola ez, euskara gaitasunari eta hizkuntzekiko jarrerari lotuta, bermatuko dira konpetentzia egokiak izango dituzten osasun-sistemako profesionalen beharrezko kopuruak.
 - o Justiziaren eremuan urratsak egingo dira epaile, magistratu, letratu, idazkari, ofizial eta fiskalek euskara ezagutu eta menpera dezaten.
 - o Polizia: Polizia Legeak aldatuko dira eta polizia berri guztiei euskarazko ezagutza exijituko zaiela bermatuko da.

HEZKUNTZA EZ-FORMALA

- Euskara-gaitasuna baldintza izango da eremu ez formalean jardun ahal izateko.
- Kirol eta aisialdi eskaintzari dagokionez, jabetza publikoko, administrazioak kontratatutako edo diruz lagundutako eskaintza euskarazkoa izango da. Are gehiago, irizpide hori jasoko da zerbitzu horien esleipen-baldintzetan.

EREMU SOZIOEKONOMIKOA

- Langile guztiei lanorduetan euskara ikasteko eskubidea aitortu eta bermatzea bultzatuko da.
- Ahozko euskarazko harremanak bermatzeko, langileak euskalduntzeko berariazko trebakuntza-planak eskainiko dira.
- Epealdi zehatzean enpresa guztietara zabalduko da euren produktuak eta zerbitzuak euskaraz eskaintzeko betebeharra. Enpresei bideratutako ezein motatako dirulaguntza deialdietan eta bestelako laguntza ekonomikoetan puntuazio-irizpide gisa euskara erabiliko da, eta kasu batzuetan, euskara-plana izatea edota beharrezko ziurtagiriak izatea baldintza gisa jarri.
- Euskaraz bizitzeko eskubidea ez da soilik zerbitzu hartzaileen eskubidea. Langileek ere eskubide horren jabe dira eta, beraz, enpresek beraien euskara planetan barne bitza euskaraz izateko aukerak ahalbidetuko dituzten neurriak diseinatuko dituzte.
- Administrazioak eginiko kontratazioetan, klausula sozialen artean, jaso beharreko zerbitzua-ren gainean hizkuntza-irizpideak ezartzea aurreikusiko da.

INGURUNE DIGITALA

- Euskarri digitalak dituzten enpresetan hizkuntza-irizpideak ezarriko dira.

SEKTOREA BERRANTOLATU

BEHARRA: HELDUEN

EUSKALDUNTZEAREN ETA

ALFABETATZEAREN AGENTZIA

Administrazioen eta herri ekimenaren arteko jardun koordinaturik ez dago gaur egunean, Euskal Herri osoko helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko, eta lehenago ere ez da inoiz horrelakorik izan. Gainera, gure herria banatua dagoen hiru eremu administratiboetan gerta daitezkeen aldian aldiko gorabehera politikoek nabarmen baldintzatzen dute euskalduntze prozesua, oro har, eta, zer esanik ez, helduen euskalduntze alfabetatzea (HEA).

Bestalde, euskal herritar guztiek euskaraz jakitea balitz arestian aipatutako xede nagusi hori, horretarako izan beharko lukeen tamainatik oso urrun dabil HEA, eta Euskal Herri osoko herritarrei zerbitzu egokia emateko zailtasun ugari dago, egun langintza honetan diharduten euskaltegiek, administrazioen menpekoek —EAEEn, udal euskaltegiak eta hizkuntza eskolak, eta Nafarroa Garaian, Zubiarte euskaltegia eta hizkuntza eskolak— zein herri ekimeneko sareek lanak baitituzte horretarako, batzuen hedatze geografiko eskasa eta besteen bitarteko falta direla medio.

Herritarrak euskalduntzera eta alfabetatzera bultzatzeko komunikazio-kanpaina bateraturik ez da egiten Euskal Herri osoan, doakotasunaren eta euskaltegien finantzazioaren inguruko elkarlanik ere ez da inondik ageri, glotodidaktikaren alorreko ikerkuntza ez-nahikoa da, egungo irakasleen formakuntza hobetzeko planteamendu koordinaturik ez dago, etorkizuneko irakasleen prestakuntza diseinatzeko eta abian jartzeko egitasmorik ere ez, material didaktikoak prestatzeko garaian ere nor bere kabuz ahal duena ari da egiten, baliokide diren tituluen anabasa ez da nolana hikoia —ez baitugu Euskal Herri osorako azterketa batzorde bakarra—, euskara ikasteko eta erabiltzeko motibazioa sustatu lezakeen hizkuntza politika koordinaturik ez dago, nazioarteko harremanetan hutsune izugarria dugu, helduak euskalduntzeko bi curriculum ditugu indarrean...

Bada, gure ustez, beraz, Euskal Herri osoa hartuko duen egitura egonkor eta iraunkor bakar baten premia, helduak euskalduntzea eta alfabetatzea estrategikotzat joko duena, alor hori koordinatuko duena, euskal herritar heldu guztiek euskaraz jakitea helburu izan eta horretarako epeak ezarri eta behar adina bitarteko izango duena, aldian aldiko gorabehera politikoaren menpe ibiliko ez dena, eta euskalduntzeari, zentzurik zabalenean ulertuta, bultzada atzeraezina emango diona.

Euskal Herri osoa hartuko duen egitura egonkor eta iraunkor bakar bat sortzeko proposamena da hau. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Euskararen Erakunde Publikoak, Euskalgintzaren Kontseiluak, Euskaltzaindiak eta herri ekimeneko euskaltegiek osatutako agentzia bat, Europar Batasunaren lege esparruan kokatua, helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko jarduna koordinatu eta oso-osorik finantzatuko duena, euskal herritar heldu guztiek euskaraz jakitea xede izango duena, euskara Euskal Herri osoan bizitzaren alor guztietan nagusi izan dadin, eta horretarako epeak finkatu eta bidea jarriko duena.

Herri ekimeneko euskaltegiez ari garenean, irabazi asmorik gabeko euskaltegi eta euskaltegi sareez ari gara, *Doakotasuneranzko bidean* egin genuen planteamendua, alegia, atarikoan aipatu dugun planteamendua, bere egiten duten euskaltegiez.

Ezinbestekoa iruditzen zaigu Euskalgintzaren Kontseilua eta Euskaltzaindia ere egitura horretako kide izatea; batetik, Euskal Herri osoko euskalduntze prozesuaren ikuspegia izateko, euskalduntze lana zentzu zabalenean ulertuta, eta, bestetik, hizkuntza-politikako neurriak proposatzeko garaian biek ala biek HEAtik harago duten jakintza baliatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren parte-hartzea, babesa eta konpromisoa, berriz, nahitaezkoak dira, hizkuntza-politika koordinatu eta eraginkorra gauzatzeko eta herri ekimeneko euskalategiekin ematen duten eta emango duten zerbitzu publikoa osorik finantzatzeko, dirulaguntza sistema gaindituta. Funtsezkoa da, halaber, agentzia diruztatzean herri ikuspegiari eustea eta aldiro aldiko gorabehera politikoek ekar litzaketan finantzazio arazoak orekatzeko konpromisoa izatea hiru instituzio horiek. Izan ere, egitura iraunkor eta egonkorra behar du helduen euskalduntze alfabetatzeak Euskal Herri osoan.

Honako egiteko hauek izango ditu helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko agentziak:

HEAren AGENTZIA

1. Euskal Herriko herri eta hiri guztietan alfabetatu edo euskara ikasi nahi duen herritar orok bizitokian berean zerbitzua dohainik emango dion euskalategia izatea. Agentziak oso-osorik finantzatzeko dituzten euskalategiak, *Doakotasuneranzko bidean* txostenean ageri zen talde-orduko kostua eguneratuta, dirulaguntza-sistema gaindituta, finantzabide egonkor baten bidez. Herritarrek ez du dirurik aurreratu behar, gutxienez %75eko bertaratzea izan behar du, ez du ikasmailerik ezinbestean gainditu behar izango, 2.000 orduko ikastordu kreditu muga izango du, eta euskalduntze edo alfabetatze prozesu guztia doakoa izango da.
2. Euskal herritar orori euskaraz jakitea gero eta beharrezkoagoa dela eta aurrerantzean ere hala izango dela pentsaraziko dion hizkuntza-politika koordinatua eginaraztea Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Foru Gobernuari eta Euskararen Erakunde Publikoari. Horretarako, neurri zehatzak aztertu eta adostuko dituzten agentziak.
3. Herritar erdalduna euskara ikastera, euskaldun alfabetatu gabea alfabetatzera eta euskaldun alfabetatua euskara gehiago ikastera bultzatzeko komunikazio-kanpainak prestatzea eta egitea Euskal Herri osoan aldi berean.
4. Glotodidaktikan ikertzea, euskara ikasteko prozesua ahal den lasterrena izan dadin; betiere, garbi izanda helburua bizitzaren alor guztietan euskaraz egoki moldatuko diren hiztunak lortzea dela, eta ez euskaraz mintzatzeko ez diren tituludunak.
5. Egun HEAn ari diren irakasleen formakuntza hobetzea: glotodidaktikan, hizkuntza mailan, gure herriaren kulturaren eta historiaren gaineko ezagutzan, HEAk egin duen bidearen gaineko jakintzan eta soziolinguistikan.
6. Gerora HEAn ari direnek zer-nolako prestakuntza behar duten erabakitzea eta horretarako bidea abian jartzea. Kontuan hartu behar da helduen alfabetatze euskalduntzeak egungoa ez bezalako tamaina lortzea dela helburua, eta horrek irakasle-kopurua handitzea eskatuko duela ezinbestean, eta baita formakuntza prozesu egokia ere, horren iraupenari eta moldeari dagokionez.
7. Irakaskuntza-eredu horrek, hau da, bizitzaren alor guztietan euskaraz egoki ariko diren hiztunak erdiestera bideratutako eredu horrek behar dituen material didaktikoak sortzea edo sortzen laguntzea, eta egiturako kide diren euskalategi guztien eskura jartzea.
8. Euskal Herri osorako azterketa batzorde bakarra sortzea, behar beste baliabide izango dituen eta administrazioan lanean aritzeko hizkuntza-eskakizunak zein diren finkatzeko duena (B2, C1 eta C2), gaur egungo titulu anabasa gainditzeko, gure herriko administrazio guztiak guztiz euskaldundu direlako hizkuntza-eskakizunen sistema baztertzen ez den bitartean.
9. Munduko beste herri batzuek haien jatorrizko hizkuntza lehengoratzeko egin duten eta egiten ari diren bidea aztertzea eta horretatik ikastea eta haiei hemengo prozesuaren berri ematea.

